BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4906

EBAZPENA, 2012ko urriaren 19koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (796/2012 zenbakiko prozedura arrunta) interesdunak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (796/2012 zenbakiko prozedura arrunta) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2012ko uztailaren 6ko Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen honen bitartez, 2009ko uztailaren 30eko (irailaren 4ko EHHA, 170. zk.)Ebazpenez deitutako Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa prozeduratik errekurtsogilea baztertzen duen Ebazpenaren kontrako berraztertzeko errekurtsoa ezesten da. Eta, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkaute, 2012ko urriaren 19a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.